

# POLITIKA ZIENTZIA ETA KUDEAKETA PUBLIKOA ETA SOZIOLOGIAKO Gradu bikoitza



# POLITIKA ZIENTZIA ETA KUDEAKETA PUBLIKOA ETA SOZIOLOGIAKO Gradu bikoitza

Ikasketak amaituta, gradu bikoitzeko ikasleek aldi berean lortuko dituzte bi gradu titulu ofizial.

## Lehen maila

Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoko eta Soziologiako Graduetan eskaintzen den berbera da. Helburua da oinarritzko prestakuntza bermatzea Gizarte Zientzien alorrean.

## Bigarren maila

Bigarren mailako hamar irakasgaietatik, 3 Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoko Graduak dira, 3 Soziologiako Graduak eta 4 komunak dira Gradu bietan.

## Hirugarren, laugarren eta bostgarren maila

Maila hauek ikasleen prestakuntza espezifikora daude zuzenduta eta **nahitaezko irakasgai**ez gain, **hautazko 3 irakasgai** eskaintzen dira. **Hautazko irakasgaiak** Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoko Graduak eta Soziologiako Graduak hautazko irakasgaien artetik aukeratzen dira:

	POLITIKA ZIENTZIA ETA KUDEAKETA PUBLIKOKO Gradua	SOZIOLOGIAKO Gradua
3. maila	<ul style="list-style-type: none"><li>Sektore Publikoaren Ekonomia (2L)</li><li>Nazioarteko Antolakuntza (1L)</li><li>Gaur Egungo Nazioarteko Politika (2L)</li><li>Euskal Gobernantza Ekonomikoa: Finantziarioa eta Aurrekontuak (2L)</li><li>Euskara eta Euskal Kultura (<i>euskarako taldea</i>) (2L)</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>Hiritartasuna, Gizarte Politikak eta Ongizatea (1L)</li><li>Aniztasuna, Desberdintasuna eta Gizarte Bazterketa (2L)</li><li>Gizarte eta Ingurumena (2L)</li><li>Kultura, Aisia eta Kontsumoa (1L)</li><li>Iritzi Publikoa (1L)</li><li>Herri Parte-hartzerako Prozesuak eta Metodoak (1L)</li><li>Erakundeen eta Enpresaren Soziologia (2L)</li><li>Euskara eta Euskal Kultura (<i>euskarako taldea</i>) (2L)</li></ul>
4. maila	<ul style="list-style-type: none"><li>Esku-hartzeko Teknikak Administrazioan (2L)</li><li>Diplomazia eta Kanpo Politika (1L)</li><li>Gatazken Analisia eta Ebazpena (2L)</li><li>Nazioarteko Gizartearen Arazo Globalak (2L)</li><li>Komunikazioa Euskaraz: Gizarte eta Hizkuntza Praktikak (<i>euskarako taldea</i>) (1L)</li><li>Euskal Ekonomia Mundu Globalizatuan (2L)</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>Migrazioen Soziologia (1L)</li><li>Osasunaren Soziologia (1L)</li><li>Familia eta Gizarte Aldaketa (1L)</li><li>Ekonomiaren Gizarte Dimentsioak (2L)</li><li>Komunikazioa Euskaraz: Gizarte eta Hizkuntza Praktikak (<i>euskarako taldea</i>) (1L)</li><li>Identitatearen eta Nazionalismoaren Soziologia (2L)</li><li>Zientzia, Teknologia eta Gizarte (2L)</li></ul>
3. edo 4. maila	<ul style="list-style-type: none"><li>Komunikazio eta Marketin Politikoa (1L)</li><li>Gatazka Politikoa eta Ekintza Kolektiboa (1L)</li><li>Generoa eta Politika (1L)</li><li>Tokiko Gobernuak (1L)</li><li>Hautakunde Analisia eta Prospektiba (2L)</li><li>Interes Taldeak eta Gizarte Mugimenduak (2L)</li><li>Partehartze Politikoa (2L)</li><li>Sistema Politikoa Munduan (2L)</li><li>Garaiko Politikaren Teoria II (2L)</li><li>Politika Publikoen Ebaluazioa (1L)</li><li>Aldaketa eta Berrikuntza Publikoa (2L)</li><li>Giza Baliabideen Kudeaketa (2L)</li><li>Gobernantza eta Maila Anitzeko Gobernuak (2L)</li></ul>	

Gehienez ere hautazko **6 kreditu baliozkotzeko** beste bi bide daude:

### 1. Borondatezko praktiken programa

3. eta 4. mailan enpresetan eta erakunde publiko zein pribatuetan borondatezko praktikak egiteko aukera daukate ikasleek. Gutxienez 180 ordu egiten dira eta gehienez 450.

Informazio gehiago: [www.ehu.eus/gkz-csc/praktikak-behak](http://www.ehu.eus/gkz-csc/praktikak-behak).

### 2. Kredituak aitortzea beste jarduera batzuen bitartez

Ikasleek kultur eta kirol ekintzetan, elkartasuneko eta lankidetzako jardueretan eta ikasleen ordezkaritzan aritzeagatik kredituak lortu ditzakete. Informazio gehiago Akademia Araudiak atalean ([www.ehu.eus/estudiosdegrado-graduikoikasketak/akademia-araudiak](http://www.ehu.eus/estudiosdegrado-graduikoikasketak/akademia-araudiak)).

Honetaz gain, **mugikortasun programa** batean parte hartuz, 3. eta 4. mailako ikasleek lauhilabete bat edo ikasturte osoa atzerriko zein estatuko beste unibertsitate batzuetan ikasi dezakete. Informazio gehiago: [www.ehu.eus/gkz-csc/mugikortasun-programak](http://www.ehu.eus/gkz-csc/mugikortasun-programak).

## Gradu Amaierako Lanak

Gradu bikoitza gradu amaierako bi lanekin osatzen da, gradu bikoitzeko titulazio bakoitzeko bat. Jatorrizko bi proiektu, memoria edo azterlan egin behar dira eta jendaurrean defendatu.